

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

62/2020 Foru Agindua, maiatzaren 4koa, baimentzen duena Aiarako Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko María del Carmen Rojo Pitillasen izendapena luzatzea

Maiatzaren 7ko 131/2019 Foru Aginduaren bidez, Aiarako Udalean zerbitzu eginkizunetarako izendatu zen María del Carmen Rojo Pitillas gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionario eta Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanpostuaren titularra, Aiarako Udaleko lanpostu horren titular Naiara Lazpita zerbitzu eginkizunetan joan baitzen Trapagarango Udalera, hango idazkari lanpostua betetzeko.

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, 51. artikuluan, xedatzen du zerbitzu eginkizunen hasierako iraupena urtebete dela. Hortaz, zerbitzu eginkizunetarako izendapenaren ondorioak 2019ko maiatzaren 3an hasi zirenez, laster helduko da haren amaiera eguna.

Horregatik, Aiarako Udalak haren luzapena eskatu du, aurretik aipatutako artikulua beste urtebetez luzatzea baimentzen baitu.

Eskaera egin duen udalak adierazten du postuaren titularrak, Naiara Lazpitak alegia, ez duela eskatu postu horretara itzultzea eta, horregatik, azken finean Carmen Rojo Pitillasen izendapenaren luzapena eskatzen du, Aiarako Udaleko Idazkaritzan jarduten jarrai dezan.

Arabako Foru Aldundia da zerbitzu eginkizunen izendapenak egiteko erakunde eskuduna Arabako Lurralde Historikoan, 128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aiarako Udaleko idazkari lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko María del Carmen Rojo Pitillasen izendapena, 131/2019 Foru Aginduaren bidez egina, beste urtebetez luzatzea, agindu hori ondorioak izaten hasi zen egunetik aurrera, hau da, 2021eko maiatzaren 3ra arte.

Bigarrena. Luzapen hori aurretik esandako iraupena izango du, postuaren titularra hartara itzuli ezean.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunari, Aiarako Udalari, Erriberabeitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 4a

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA